



BERGARAKO JAI NAGUSIETAN ETA AUZOETAKO JAIETAN TXOZNEN INSTALAKUNTZA ARAUTUKO DUEN UDAL ERREGELAMENDUA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala.

Onartuta: Udalbatzak 1993/07/26an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1993/08/20an.

Aldaketak:

- **1. aldaketa**
7. artikulua, 8. artikulua
Onartuta: Udalbatzak 1996/03/04ean
Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1996/04/02an

BERGARAKO JAI NAGUSIETAN ETA AUZOETAKO JAIETAN TXOZKEN INSTALAKUNTZA ARAUTUKO DUEN UDAL ERREGELAMENDUA

1. artikulua.- Bergarako jai nagusietan eta auzoetako jaietan jartzen diren taberna motako txozna ez profesionalak ipintzeko orduan jarraitu beharreko arauak zehaztea da Arautegi honen helburua.

2. artikulua.- Instalazio hauek Pentekostes jaietan eta auzoetako jaietan eta Udalak esandako tokian bakarrik jar daitezke.
Inoiz ez horretarako egokitu gabeko lokaletan eta indarrean dagoen arautegiak eskatzen dituen baimenik ez dutenetan.

3. artikulua.- Taberna moduko txoznen kopurua Udalak jarriko du momentuko toki librearen arabera eta bakoitzari utzitako tokian txozna bakarra eta zatiezina jarriko da.

4. artikulua.- Jaiak hasteko eguna baino hiru egun aurretik has daiteke txoznaren instalakuntzarekin, eta jaiak hasi baino 24 ordu lehenago instalazioa bukatuta egon beharko da, udaleko zerbitzu tekniko eta sanitarioek behar diren ikuskapenak egin ditzaten.
Pazkuetako martitzena pasatu edo auzoko jaiak bukatu ondoren, bi egunetako epean kendu beharko dira.

5. artikulua: Osasun baldintzak:

5.1. Instalazio horietan tabernetan ohizkoak diren edari eta janariak sal daitezke, besterik ez.
Baina, jatorrizko ontziraketa duten janariak bakarrik saldu ahal izango dira.

5.2. Azaroaren 11ko 15/1988 legean ezarritakoaren arabera, debekatuta dago 18 urtetik beherakoei edari alkoholikoak eta tabakoa saltzea, horri buruzko kartela ikusteko moduko tokian jarri beharko delarik.

5.3. Publikoarentzako edalontzi eta antzerakoak erabili eta botatzekoak izango dira (erabilpen bakarrekoak).

5.4. Hozkailua behar duten elikagai guztiak sartzeko adinako kapazitatea duten hozkailuak eduki beharko dira.

5.5. Zabor eta hondarrak, Udalak gune horretan utziko dituen kontenedoretan laga beharko dira, ondo itxitako poltsetan.

5.6. Debekatuta dago horretarako zehaztu ez diren tokietan materialak pilatzea.

5.7. Lanegun bakoitzaren ondoren, txozna bera eta erabilitako tresna guztiak garbitu eta desinfektatu beharko dira.

5.8. Iharduera horrek txukuntasun, apaingarritasun eta garbitasun baldintza egokiak izan beharko ditu.

5.9. Bozgorailu (altavoz) eta musika ekipoek potentzia mugatzeko gailua izango dute, eta hauen zaratak, hiru metrora neurtuta, ez du inoiz gaindituko ondoren aipatzen diren soinu mailak:

- Gertuen daukan etxebizitza 10-15 metrora baldin badago: 80 dezibelio A.
- Etxebizitzaren bat 10 metro baino gutxiagora baldin badago: 75 dezibelio A.
- Hurbilen dagoen etxebizitzara 15 metro baino gehiago baldin badaude ez da 85 dezibelio Atik pasako.

6. artikulua.- Merkatal eta segurtasun-neurriak.

6.1. Janari eta edarien salneurria jendaurreko txartel baten jarriko dira, ondo ikusten den tokian.

6.2. Txoznak gaueko 4retan itxi beharko dira eta gutxienez 4 orduetan itxita egon beharko dute. Itxi baino ordubete lehenago emendatu beharko da megafonia.

6.3. Txoznak jartzeko baimena duten talde edo entitateek kasu bakoitzean zehaztutako kopuruagatik erantzukizun zibileko poliza bat sinatu beharko dute jarduerari ekin aurretik.

7. artikulua.- Eskabideak.

Irabazi asmorik gabeko Bergarako edozein elkarte edo entitatek aurkez ditzake instalazio hauetarako eskaerak, baita helburu amankomuna duten egitatezko taldeek ere, gutxienez bi hilabeteko aurrerapenez. Eskaera hauek talde, elkarte edo entitateak akordio baten bidez baimendutako pertsonak sinatutako instantzia baten bidez egingo dira, baimen hori justifikatuz.

Entitate, elkarte edo taldea, adinez txikiak direnak osatzen badute gehiengoz, hauen ordezkari legalak honetarako izendatutako ahalmen osoa duen pertsonak aurkeztu beharko du eskaera.

Halako akordiorik ziurtatu ezean, txoznaren ihardueraren erantzukizun osoa eta baldintzen erantzukizuna eskatzaileak bere gain hartzen dituela ulertuko da, gehienak adinez txikiak direnekin osatutako elkarte, entitate edo taldeen kasuetan ezik, non eskaera baztertu egingo da.

8. artikulua.- Adjudikazio hartzaileek aurkeztu beharreko agiriak.

Tokiak esleitu ondoren, jaiak hasi baino 24 ordu lehenago, ondoko agiriak aurkeztu beharko dira Udaleko Kultura departamentuan:

- Udalaren aurrean txozna guztietako ordezkari bakarraren datuak.
- Gehiengo adinez txikiak direnekin osatutako adjudikazio hartzaileek, txoznan lan egingo dutenen zerrenda, eta iharduera horretarako bakoitzaren ordezkari legalen baimena.

9. artikulua.-

Adjudikazio hartzaileek ordezkari bakar bat izendatu behar dute Udalaren aurrerako, eta pertsona hori beti lokalizatzeko moduan egingo da.

10. artikulua.- Arau-haustekak.

10.1. Arau-hauste oso larriak izango dira.

- Behar den udal lizentziarik gabe txozna irekitzea.
- Kokapen-tokia ez errespetatzea edo instalakuntza jartzeko eta kentzeko epeak ez errespetatzea.
- Edariak kristalezko edalontzietan ematea.
- Baimendu gabeko janariak saltzea.
- Kalte larriak sortzea herri erabilpeneko ondasun, zerbitzu edo ondareetan.
- Bi akats larri eta antzerakoak.
- Adjudikatutako titularitatea aldatzea edo eskualdatzea edo txoznaren ustiaketa (osorik edo partzialki) lagatzea.

10.2. Arau-hauste larriak izango dira:

- Jarritako ordutegitik kanpo irekitzea.

BERGARAKO UDALA

Bergarako jai nagusietan eta auzoetako jaietan txoznen instalakuntza arautuko duen udal erregelamendua

- Zaraten neurriak gainditzea.
- Aurrikusi gabeko edo baimendu gabeko erabilpena ematea.
- Udalaren ikuskaritzari oztopoak jartzea edo ezezkoa ematea.
- Osasun neurriak ez zaintzea, jendearen osasunaren kaltetan.
- Hiru arau-hauste arin.

10.3. Arau-hauste arinak:

- Ordenantza honetan agindutakoa ez betetzea, arau-hauste larri edo oso larritzat jotzen ez denean.

11. artikulua.- Zigorrak.

11.1. Udal Gobernu Batzordeak jarriko ditu zigorrak, aurrez Kultura Batzordeak proposatuko dituelarik.

11.2. Azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa jarraituko da espedientearen tramitazioan, 10 egunetako epean dagokionari entzunaldia emango zaiolarik.

11.3. Zigorrak honako hauek izango dira:

- a) Arau-hauste oso larriengatik: fidantza osorik galtzea.
- b) Arau-hauste larriengatik: fidantzaren %50 galtzea.
- c) Arau-hauste arinengatik: fidantzaren %10 galtzea.

11.4. Edozein kasutan, halaber, tramita daitezke arau-hausteengatik salaketak beste organu aginpidedunen aurrean, bidezkoa bada.

11.5. Fidantza hori erabiliko da, UGB-k hala erabakiko balu, kalte-ordainei aurre egiteko, baina honek ez du bide exekutiboa erabiliz kobratzeko aukera oztopatzen, ez eta fidantza osoa mantendu eta berrosatzeko derrigortasuna ere.

12. artikulua.-

Osasun neurriak ez betetzeagatik jendearen osasunerako arrisku handia sor daitekeenean, akats horiek konpondu arte iharduera geldiarazteko gaitasuna dauka Udalak; guzti hau dagokion zigorrak ezartzearen kaltetan gabe.

13. artikulua.-

Alkateak eta Udal Gobernu Batzordeak daukate Erregelamendu hau interpretatzeko gaitasuna.